

2021EKO OTSAILAREN 17AN UDALBATZAK IZANDAKO EZ OHIKO ETA PREMIAZKO OSOKO BILKURA

BILDUTAKOAK:

ALKATEA: Unai Elgoro Oianguren.

BERTARATUAK: Karmele Uribarri Urresti, Pilar Leanizbarrutia de Bizkarralegorra, Xabier Ochoa Muñoz, Ainhoa Cabero Garcia, Koldo Zubillaga Beltran de Heredia, Alex Dietmar Walter Seiler, Fco. Javier Mar Medina, Mikel Uribeetxebarria Aldalur, Ion Albizu Gonzalez, Irati Pagoaga Zaloña, Jasone Garzia-Etxabe Lopez, Ione Ojea Ugarte eta Gorka Gabilondo Jauregi.

EZ BERTARATUAK:

KONTUHARTZAILEA: Begoña Arenaza Bengoa

IDAZKARIA: Fco. Javier Mendizabal Garate

Aretxabaletan, 2021eko otsailaren 17an, arratsaldeko 19:15 direnean, goian aipatutako jaun-andreak elkartu dira Udaletxeko Udaltzatar Aretoan, EH Bilduk proposatu duen mozioa jorrazteko. Bilkura egiteko.

Gorka Gabilondok esan du abenduan ez zela lortu SAREren adierazpen instituzionala ateratzea. Gero urtarrilean beste presazko gaiak zirela eta hurrengorako utzi zen ez Ohiko baterako, baina hori ez zen heldu eta gaur arte iritsi gara. Aurreko asteazkenean EAJ/PNVren erantzuna jaso zuela esna du eta proposamen horri ontzat eman ziola, zati bat kenduta, baino azkenean tarte txikia, lana eta ostiralean dagoeneko deialdia bidalita egonda, ez zen gaia deialdian sartu. Orain arte gai hau jorrazteko denbora nahikoa egon dela deritzo eta ez dakiela zergatik hilabete batean ez garen gai izan tratatzeko.

Alkateak esan du ostiralean gai zerrendan sartzeko asmoa zegoela, baina izan beharko zen beste osoko bilkura bat. Ohiko Osoko Bilkuran gaiak eransterik badago, baina ez ohikoetan ez.

Gorka Gabilondok galdetu du EAJ/PNVk mozioaren edukiarekin ados dagoen eta alkateak dio astean zehar erantzun diola. Gorka Gabilondok esan dio mozioak aurrera egin behar badu, itxoin dezakeela hurrengo osoko bilkura arte, baina ez badu aurrera egin behar osoko bilkura egitea eskatzen du. Helburua da denon artean ados jartzea eta atxikipena lortzea. Arazoak parte hartzearekin daude eta berari gustatuko litzaioke zinegotzi guztien parte hartzea.

Alkateak erantzun dio ulertzen duela bere jarrera, baino ez dagoela ados mozioarekin. Osoko Bilkura amaitu eta beste bat egin daitekeen gaitzen da eta idazkariak aipatzen du zinegotzi denak egonda, ez ohiko eta premiazko osoko bilkura egin daitekeela lehen bizi gaia jorrazteko premiazko izaera bozkatuta eta gehiengo absolutuak onartu ondoren.

Gorka Gabilondok esan du zinegotziak ez direla ados jartzen parte hartze aktiboan eta Karmele Uribarrik erantzun dio mobilizazioaren gaia ere hor dagoela. Gorka Gabilondok dio Sahararren kasuen herritarrei animatu egiten zitzaizela parte hartzera eta plazan jende asko bildu zela. Hori besterik ez da eskatzen, hau da, parte hartzea.

Ion Albizuk galdetu dio alkateari adostasun batera iristek aukerarik dagoen eta alkateak galdetu dio mozio aldatu behar duen eta Ion Albizuk erantzun dio ezetz. Alkateak bere aldetik erantzun dio beraiek ere ez dutela beren jarrera aldatu behar. Ion Albizuk erantsi du ez duela zentsurik egoera honekin jarraitzea eta alkateak proposatzen du bozkatzea eta aho batez onartu da SARE-ren mozioa jorraztea.

Espetxe politikari buruzko EH Bilduk aurkeztutako mozioa.

Gorka Gabilondok honako mozioa irakurtzen du:

**ADIERAZPEN INSTITUZIONALA
ESPETXE POLITIKA**

Urtarrilaren 9an Euskal Herriko herri ezberdinetan egindako ekimenetan ikusi da gero eta gehiago garelako euskal presoek eskubideak aldarrikatu eta beraien senideek jasaten duten zigorra salatzen dugunak.

Alderdi, sindikatu eta gizarte eragile ugari bat egiten dugu beste espetxe politika baten aldeko adostasunean. Atxabaltan ere ikusi da herritarrak prest daudela konponbidearen alde pausoak emateko.

Elkarbizitzarako nahia agerian geratu da, herri gisa aurrera egiteko gogoarekin batera. Horretarako, salbuespeneko espetxe-politika behin betiko amaitzea beharrezkoa da. Ezin da aurrera egin senideak, eta bereziki haurrak eta adineko pertsonak, zigortzen dituen urrutze politika aldatu gabe, larriki gaixo dauden presoak espetxean egoera larrian mantenduz edota presoek ezarritako etxeratze prozesua ahalbidetzen dien gradu progresioa ukatuz.

Azken hilabeteetan zerbait mugitzen ari dela ikusten dugu, nahiz eta espetxe politikan hartu diren neurriak aringarriak baino ez diren, eta ez konponbidea.

Atxabaltako Garikoitz Garcia Arrieta Picassent-eko espetxetik Zaballako espetxera gerturatu zuten, bere senide eta lagunek pairatzen zuten zigor gehigarriarekin amaituz.

Baina euskal preso guztiei ezartzen zaien salbuespeneko espetxe politika oraindik indarrean dagoenez, bai Gari eta baita gainontzeko euskal presoak ere hamaika zailtasun eta oztopo dauzkate legeak ahalbidetzen duen bidea egiteko.

Espetxe politika hau iraganean kateatuta dago eta ez-ohiko lege batean oinarritzen da. Etorrizunera begira jartzeko garaia dela uste dugu eta horregatik ezinbestekoa ikusten dugu gizartearen aktibazioa bultzatzea konponbidearen bidean aurrera egiteko.

Aretxabaletako Udaltza osatzen dugunok espetxe politika hau amai dezan era aktiboan inplikatzeko konpromisoa adierazten dugu. Hau horrela, Aretxabaletako Udala, hurrengo hilabeteetan antolatuta daitezkeen ekimenetan parte hartzeko deialdia luzatzen dio herritar guztiei. Gisa eskubideak herritar guztiek bermatuta eduki behar dute: berdin non edo noiz.

Guztion artean, elkarlanean, indar gehiagorekin, aurrera egingo dugu.

Hauek dira zehazki, udaltza honek bere gain hartzen dituen aldarrikapenak:

- 1) Indibidualizazio, humanitate, eginiko kaltearen aitortza eta gizarteratzearen printzipio legalen sustapen aktiboan oinarritutako espetxe-politika bat babesteko eta bultzatzeko konpromisoa bere egiten du Aretxabaletako Udalak, eta horrelako politika baten ondorioetako bat presoak haien familia-inguruetik gertu dauden espetxeetara eramatea da senideei ezarritako zigor erantsia etenda.*
- 2) Euskal preso guztiei gradu-progresioa ahalbidetzea, preso guztiek jarraitu beharreko etxeratze prozesua egin dezaten*
- 3) Gaixotasun larriak dituzten presoek etxeratzea.*
- 4) Adinez nagusiak diren presoek etxeratzea, euren osasuna eta bizitzeko eskubidea lehenetsiz*
- 5) Aita, ama edo biak espetxean dituzten motxiladun haurrek gurasoekin bizitzeko duten eskubidea errespetatzea, hala nola, preso diren pertsonen guraso izateko duten eskubidea bermatzeko neurriak hartzea.*

- 6) *2008. urtean Europar Batasunak adierazi bezala, Frantzia eta Espaniako kondena ezberdinak zigor bakar batean biltzea, modu honetara, Frantziako kondena bete ostean, Espaniako zigorra antzeko akusazioengatik zero-tik ez hastea. 9 euskal preso libre beharko lukete.*

Aretxabaleta, 2021eko otsailaren 10ean

Jarraian aipatu du lehen puntua EAJ/PNVren eskariz txertatu dela inolako arazorik gabe, baina honako paragrafoa kentzea eskatu da eta berari garrantzitsua iruditzen zaio:

Aretxabaletako Udalbatza osatzen dugunok espetxe politika hau amai dezan era aktiboan inplikatzeko konpromisoa adierazten dugu. Hau horrela, Aretxabaletako Udala, hurrengo hilabetetan antolatu daitezkeen ekimenetan parte hartzeko deialdia luzatzen dio herritar guztiei. Gisa eskubideak herritar guztiek bermatuta eduki behar dute: berdin non edo noiz.

Jarraian bozketa egiten da eta EH Bilduko sei zinegotzien aldeko botoekin eta EAJ/PNVko zazpi zinegotzien aurkako botoekin ez da mozioa onartzen.

Eta besterik ezean, aipatutako eguneko zazpiak eta hogeita bost direnean bilera amaitu egin da, eta nik, idazkariak, bertan gertatutakoa egiaztatzen dut.

O.E.
ALKATEA,

IDAZKARIA